

APIRILAK 17.

GARA

MASKOTAK



Un reto al que nos enfrentamos al vivir con mascotas es la limpieza del hogar. Sin embargo, mantenerlo limpio es posible si se conservan el orden, la educación y las rutinas adecuadas, logrando convivir con nuestros amigos peludos sin que la suciedad o el desorden se conviertan en un problema.

Cuatro patas, cero desorden: el secreto de un hogar limpio con mascotas

REPORTAJE

Ainhoa AROSTEGI | BILBO

Para millones de familias, tener mascotas constituye una fuente permanente de compañía, cariño y bienestar. Los perros y gatos se han vuelto miembros de la familia en el sentido más estricto de la palabra, aunque su presencia también supone desafíos diarios, particularmente en lo que concierne a la limpieza del hogar. Si se eligen materiales y se establecen rutinas adecuadas en el cuidado diario, orden y animales domésticos pueden coexistir sin problemas.

Uno de los cimientos esenciales es instaurar rutinas continuas de limpieza. Si se ventila la casa todos los días, aunque solo sea por un breve periodo de tiempo, se logra renovar el aire y prevenir que se acumulen olores y alérgenos. Además de esto, es fundamental mantener en buen estado los lugares de descanso que utilizan habitualmente las mascotas. El lavado frecuente de cojines y mantas previene la acumulación de suciedad y olores desagradables, a la vez que las camas fabricadas con materiales antibacterianos colaboran en la disminución de bacterias.

Es necesario actuar rápidamente en casos de pequeños accidentes, como la orina o las heces fuera de su sitio. La eliminación de manchas y la neutralización de olores se pueden lograr con eficacia mediante el uso de productos específicos o remedios caseros como el vinagre y el bicarbonato. También, acciones simples como limpiar las patas después de los paseos o recortar las uñas contribuyen a impedir que entre suciedad y a prevenir deterioros en el mobiliario.

ELEGIR LOS MATERIALES

Algo que a mucha gente no se le pasa por la cabeza, es que la selección de materiales en casa tiene un rol crucial. Los suelos porcelánicos son conocidos por su durabilidad y facilidad de mantenimiento; en cambio, los muebles de plástico o metal proporcionan una mayor resistencia frente al uso intensivo. El cuero, mientras tanto, puede ser una alternativa funcional para los sofás, ya que este material no almacena tanto pelo; sin embargo, necesita protección contra los rasguños. Para aquellos que prefieren los textiles, materiales como el poliéster son más duraderos y sencillos de limpiar que otros más frágiles.



Materiales como el poliéster son más duraderos y sencillos de limpiar.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

DESIGNAR ÁREAS CONCRETAS PARA EL DESCANSO, LA COMIDA Y EL JUEGO AYUDA A CONSERVAR EL ORDEN GENERAL DE LA CASA.

Las paredes pueden ser adecuadas para convivir con animales de compañía a través de pinturas lavables o recubrimientos que hagan más fácil quitar las manchas. De igual forma, superficies como el vinilo o el linóleo combinan lo estético y lo funcional porque son fáciles de mantener y resistentes.

Finalmente, la educación y la organización de las mascotas son elementos esenciales para mantener el orden y la limpieza dentro de casa. De-

signar áreas concretas para el descanso, la comida y el juego ayuda a conservar el orden general de la casa. Por otro lado, el entrenamiento básico contribuye a restringir conductas que puedan ocasionar suciedad o deterioro.

Mantener un hogar limpio con animales de compañía no es una tarea imposible. Pero para disfrutar de la compañía de los animales sin dejar de tener un hogar limpio y organizado, se necesita planificación.



Wau Wau
Peluquería canina

Santu Iturri 7. ZARAUTZ · 943 05 47 95 · wauwauaccesorios@gmail.com

Etxeko txakur eta katuei ezer falta ez dakien

Anoetako Gurdi kooperatibak txakur eta katuentzako produktu aukera zabala gehitu dio baserritarrei zuzendutako ohiko produktu eta zerbitzuen eskaintzari.

J.S. | ANOETA

Gipuzkoako Anoeta herrian dagoen Gurdi saltokiak duela bi hamarkada zabaldu zituen atea baserritarrei zuzendutako produktu eta zerbitzuak prezio justuan eskaintzeko asmoarekin. Azken hamar urteetan Ehneler kooperatibak kudeatzen duen proiektuak, salmenta tokia izatetik harago, lehen sektorea bizirik mantentzea du helburu; horregatik eskaintzen ditu aholkularitza eta beste hainbat zerbitzu ere.

Udaberri hasiera honetan, eskari handiena baratzezaintza eta lorezaintza arloetakoa da, baina urte guztian zehar abeltzaintzarako beharrezkoa den guztia ere saltzen dute: jantokiak, itxiturak, pentsuak, albaitaritza botika... Eta animaliez ari garela, aurreko guztiari etxeko txakur eta katuek behar dituzten produktuen aukera zabala gehitu diote.

Naroa Irure da Gurdi saltokiko arduraduna eta, berak azaldu digun moduan, etxeko maskoten inguruko produktuen eskariak gorakada handia izan du azken urteetan, janaritik hasi eta osagarriaraino. «Produktu horien bila etortzen diren bezero batzuk baserrikoak dira, baina gehienak, kalekoak. Eta horiekin batera, ehiztariak ere bai».

Horrela, etxeko maskotentzako eskari handiena duten produktuak pentsuak dira. Alde batetik, txakur guztientzako ohiko pentsuak daude es-



Naroa Irure, Gurdi saltokiko arduraduna, maskoten osagarrien txokoa. GARA

kuragarri, hau da, berdura eta zerealetan oinarritutakoak baina, arrazaren arabera, animalia jatorriko proteinen kopuru desberdinak dituztenak (oilaskoa, arkumea, izokina...)

Eta bestetik, osasun arazoak dituzten maskotentzako bereziak. «Pentsu batzuk bereziki prestatuta daude hesteetako arazoak edo gernu arazoak dituzten animalientzat, eta, garestiagoak badira ere, egia esan, oso emaitza onak lortzen dituzte», azaldu du Na-

BASERRIKO GAINERAKO ANIMALIENTZAKO BOTIKAK DITUZTEN BEZALA, ETXEKO MASKOTENTZAT ERE ESKURAGARRI DITUZTE, BETIERE ALBAITARIAREN ERREZETAREKIN.

roak. Horiekin batera, *snack* edo gutuziak ere badituzte, ikasten edo trebatzen ari diren txakurrak saritzeko.

Katuen pentsuei dagokionez, arrain kopuru handiagoa dute eta mota bereziak ere badaude, «adibidez katu txikienez, osasun arazoren bat dutezentzat edo antzututa daudentzat».

Mota guztietako osagarriak Osagarrien arloan, mota guztietako uhalak, lepokoak, ar-

nesak eta muturreko edo mozalak dituzte eskuragarri, horien artean ehiza txakurrentzat bereziki egindako koloretako lepokoak eta zintzarridunak. Horrekin batera, txakurrentzako eta katuentzako janlekuak eta edanlekuak ere badituzte, baita autoan eramateko kutxen edota etxean jartzeko etxolen aukera zabala ere, behar guztieta- ra egokitzen direnak.

Asko eskatzen den beste produktuetako bat hezur formako jostailuak dira. Jolastu eta erlaxatzeko ez ezik, osagarri horiek oso baliagarriak dira hortzak garbi mantenduz gaitotasunak ekiditeko, baita ma-sailezurra indartzeko ere. Garbitasunaz ari garela, xanpuak ere saltzen dituzte, maskota guztiek erabil ditzaketen neutroak edo dermatitis arazoak dituztenentzako bereziak.

Gurdi dendaren beste berezitasuna bertan duen albaitaritza farmazia da. Baserriko beste edozein animalientzako botikak dituzten bezala, etxeko maskotentzat ere eskuragarri dituzte, betiere albaitariaren errezetarekin eskatu behar direnak. Horien artean, parasitoen aurkako botikak dira gehien saltzen direnak.

Beraz, baserriko animalientzako gaiak ez ezik, kaleko etxeetako txakur eta katuei zuzendutako produktu guztiak ere eskuragarri daude Anoetako Gurdi saltokian. Behar izanez gero, etxerako zerbitzua ere eskaintzen dute.

Deti Zurekin
Crematorio de mascotas

Cremaciones individuales y colectivas.
Posibilidad de presenciar el acto en su sala especialmente acondicionada.
Recogida de la mascota y entrega de cenizas.
Certificados de cremación.
Posibilidad de elegir urnas personalizadas y biodegradables.

Mikel Arozamea Bidea, 5, 20115 ERGOBIA (Astigarraga) · T 943 334 299 / M 629 320 264 · www.betizurekincrematorio.com

“ IÑAKI LOINAZ Anima erraustegiko arduraduna

Maskotak gero eta garrantzitsuagoak dira gurean, eta haiek zaintzeaz gain, hiltzen direnean duintasunez agurtu nahi izaten ditugu. Dolu prozesu horiek ez dira batere errazak izaten, eta Anima erraustegian, agur esateko zerbitzu integrala eskaintzeaz gain, maskoten jabeek lagundu egiten diete dena ahalik eta hobekien joan dadin.

«Gure maskotekin dugun harremana asko eta azkar ari da aldatzen»

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Maskotek egunero adierazten digute euren maitasuna, baldintzarik gabe, eta azkenean lagun min bilakatzen dira. Horiek hiltzen direnean, agurrik duinena eman nahi izaten diegu. Horretan egiten du lan Iñaki Loinazek Errenteriako Anima erraustegian.

Jabeak erraustak gorde nahi ez baditu, beste animaliekin batera egiten da errausketa, baina jaso nahi baditu, indibidualki egiten da. Jabea presentzialki ere egon daiteke. Horrez gain, bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzte Animan, une gogor hori errazteko asmoz.

Beilatoki zerbitzua ere baduzue, ezta?

Gizakien tanatorioetan bezala, ingurua dugu prestatuta jendea etor dadin. Animaliak garbitu, orraztu eta prestatzen ditugu, eta areto batean maskotekin egon daitezke agur esateko.

Unea iristen denean, animalien eutanasia etxean ere egin al daiteke?

Gehienetan maskotak albaitezetan hiltzen dira. Gu normalean albaitezengana goaz, gorputzak berreskuratzen ditugu, errausketak egiten ditugu eta erraustak klinikara itzultzen ditugu. Jabeek kliniketan jasotzen dituzte.

Hori izan da orain arte normalena. Baina gure maskote-



JAGOBA MANTEROLA | FOKU

kin dugun harremana asko aldatzen ari da, oso azkar gainera, eta jendeak nahi izaten du eutanasiaren unea iristen denean bere etxeetan egitea. Ingurune kontrolatua da eta animaliak lasaiago daude.

Albaitari guztiek ez dute etxeetan egin nahi izaten. Guk zerbitzu hau eskaintzen dugu. Baditugu gurekin lan egiten duten albaitariak, eta jendeak eutanasia etxean nahi badu egin, horiekin jartzen gara harremanetan. Haiek lehenik baloratu egiten dute animaliak benetan eutanasia behar duen, eta argi dagoenean ja-

«UNEA IRISTEN DENEAN, EUTANASIA EGITEKO ERABAKI HORI HARTZEA EZ DA ERRAZA. OSO MINGARRIA DA»

bearekin hitzordua egiten dute etxean, eta gurekin koordinatzen dira gero guk gorpu hori jasotzeko, ahalik eta azkarren, dolua errazteko.

Katuak eta txakurrak bakarrik jasotzen dituzue?

Maskota den edozein animalia hartzen dugu, baina %96 txakurrak eta katuak izaten dira. Badaude, halaber, dortokak, untxiak, txoriak, hamsterrak... Iparraldean lan asko egiten dugu eta han beste motatako animaliak ere badaude, adibidez, ahuntz txikiak edo txerri vietnamdarrak.

Zein motatako urnak eskaintzen dituzue errausketaren ostean?

Gu diseinatzaile, ekoizle eta banatzaileak ere bagara, Europa mailan. Gure katalogoa produktu ekologikoetan zentratua dago (baso jasangarrietako egurra eta zeramika hidrosolublea), baina beste produktu bereziekin ere egiten dugu lan, adibidez, erretxinarekin oinatza ateratzeko kit bat eta erraustak barnean dituzten erlikarioak. Badugu bitxi oso berezi bat, zilarrezko eskumuturreko bat, non bitxigile batek animaliarenekin oinatza grabatzen duen eskuz. Oso oroigarri hunkigarria da.

Eutanasiaren unea iritsi dela onartzea ez da batere erraza izango.

Batzuetan ez dugu ikusi nahi, egoismo puntu hori dugulako, maskotak gurekin jarraitzea nahi dugu, ez hiltzea... eta ez dugu ikusten sufritzen ari dela. Unea iristen denean, erabaki hori hartzea ez da erraza. Badaude seinale batzuk, eta albaitariak berak ere lagunduko gaitu. Oso mingarria da.

Batzuek ez dute ulertuko zein garrantzitsuak izan daitezkeen maskotak.

Denok dugu animalia bat inguruan, nahiz eta gurea ez izan. Gizakiak enpatikoak gara, gehienak behintzat, baina normalean animaliarik inoiz izan ez dutenek ez dute gutziz ulertzea lortzen.



animō

Animalien erraustegia eta agurtzeko zerbitzua

Benetako maitasunak ez du hitzik behar

Animan, agur pertsonalatuak eskaintzen ditugu lotzen gaituen lotura amaigabe hori ohortzeko. Errespetu, ardura eta xehetasun paregabeekin, azken agur hori maitasunez eta oroimenez beteriko omenaldi bihurtzen dugu.

+34 628 15 49 39

crematorio@animastore.es

@anima.crematorio

www.animacrematorio.com